

Baloretzko proposamena

Gure proiektuak alergiak edota bestelako lehentasunak dituzten pertsoneri **elikadura seguru** bat bermatuko die, beraiek behar edo nahiago dituzten produktu eta otorduak lortzeko prozesua errazten. Lehentasun hauek hainbat motatakoak izan daitezke: laktosarik gabeko jakiak, glutenik gabeko produktuak, janari begano edota begetarianoak...

Gure proiektuaren **alde berritzailea** informazio hau nola eskaintzen dugun izango da. Formatu sinple eta eraginkor batean aurkeztuko dugu informazio hau, play storean eskuragarri egongo den kosterik gabeko aplikazio baten bitartez. Inguruko jatetxe eta supermerkatuekin aliantza sortuko dugu beraien publizitatea eskainiz aplikazioan eta trukean dirua emango digute.

Balio-proposamena ez da produktu edo zerbitzu bera, baizik eta antzerako beste proiektu batzuegandik bereizten gaituen hori.

Bezeroentzat **balioa sortzen duten elementuak** hauek izan ohi dira:

- **Nobedadea:** Inguruan (Euskadin) ez dago horrelako beste aplikaziorik, bertako supermerkatu, denda eta jatetxeen eskaintza erakusten duenik eta elikagaiak lehentasunaren arabera sailkatzen dituenik.
- **Pertsonalizazioa:** aplikazioa pertsonalizatzeko aukera egongo da. Hasieran guk aukeratuko dugu diseinu sinple eta ulertzeko erraz bat eta gainera ondoren, erabiltzaile bakoitzak aukeratuko ditu bere lehentasunak: hizkuntza, zonaldea, alergiak... bere datuak sartuz.
- **Lana erraztea:** Gure aplikazioaren helburua pertsonen lana erraztea da elikadura orekatu bat mantentzeko eta gure zerbitzua horretan finkatuko da. Gure helburua hauen denbora aurreztea izango da supermerkatu erostetak egitera joaterakoan edo jatetxe bat bilatzerakoan bazkaltzeko. Hau jaterakoan intolerantziak edo lehentasunak dituzten pertsonentzat prozesu zaila izan daitekeenez, gure proiektua bereziki pertsona hauei zuzenduta egongo da.
- **Diseinua:** Aplikazioak diseinu erraz eta ulerker bat izango du, teknologiarekin aditua ez den pertsona batentzako erabiltzeko eroso eta zailtasunik gabekoa izateko. Menu nagusian supermerkatu edo jatetxea bilatzeko aukera egongo da, eta bat aukeratzekoan, erabiltzaileak selekzionatutako zonaldeko eta beraien lehentasunetara egokitzen diren jatetxe eta supermerkatuen izenak egongo dira. Bat aukeratzekoan honen kokapena, menu motak, prezioak, ordutegiak... agertuko dira. Gainera, gogoko dituzten tokien informazio hau gordetzeko aukera edukiko dute, aplikazioaren beste atal batean agertuko direnak.
- **Prezioa:** Aplikazioa deskargatzen duten pertsonak ez dute ordaindu behar, beste toki batzuetatik lortuko ditugulako fondoak. Play store-ek deskarga kopuru batetik aurrera dirua emango digu, eta inguruko jatetxe eta supermerkatuek dirua ordainduko digute beraien produktu edo zerbitzua publizitateagatik.

- **Eskuragarritasuna:** Aplikazioa mugikor bat duen edozein pertsonarentzat egongo da eskuragarri Play Store edo App Storen. Honengatik, gure bezero potentzialen kopurua handia izango da, gaur egun adin desberdinetako pertsonak erabiltzen dutelako mugikorra egunero.
- **Segurtasuna:** Gure erabiltzaileek beraien datuak sartuko dituztenez, pribazitate politika bat edukiko dugu hauen datuak interneten ez zabaltzeko eta publikoak ez bilakatzeko.

Gure ideiak dakartzan onurak edo **balioak identifikatu:**

Aplikazio berritzailea izango da. Gainera bakoitzak pertsonalizatzeko aukera izango du bere datuak, lehentasunak eta intolerantziak kontuan hartuz. Honen helburua jaterakoan elikagaien aukeraketa erraztea izango da, bai jatetxe batera joaterakoan edo supermerkatuan erosketak egiterakoan. Elikagaien nutrizio baloreak; kaloria, proteina, azukrea eta beste hainbat balore definituko ditugu.

Horrez gain, diseinu sinple eta ulergarri bat edukiko du erabiltzaile mota guztientzako eskuragarri izango dena. Aplikazioa dohainik izango da, hau egiteko aukera izango dugu aplikazioan agertuko diren jatetxe eta supermerkatuek errepresentazioarengatik ordainduko digutelako, eta gainera aplikazioan iragarkiak agertuko dira.